

# MUSIKA ETA MUSIKA TRESNAK Lan proiektua



# Atalak

- Justifikazioa
- Helburuak
- Edukiak
- Emanaldietako kolaboratzaileak
- Baliabide osagarriak
- Gauzatzeko era
- Ebaluaketa

# Justifikazioa

- Musika lanketa, abesti eta erritmoari lotua lantzen dugu gehien bat. Girotzeko erabiltzen dugunean, sentazio lasaigarri eta atseginak lortu asmoz erabiltzen dugu, oharkabeko (horietaz mintzaten ez garen heinean) sentazioak izaten direlarik.
- Musikaren ekoizpenerako teknikak, edota tresnen ezagupenak, leku gutxi dute haurrentzako prestatzen ditugun saioetan. Eta hori hutsune bat dela deritzogu, zeren gure hurrek badute nahiko oharmen gaitasun maila, nahiko hizkuntza eta oroitzapen gaitasunik musikaren inguruan ikasketa zabalagoak egin ahal izateko.
- Haurren mundua musikaz inguratzeak badu eragina musikaren zaletasuna pizterakoan, baina ziur gaude mundu honetako informazio-iturriak zabaltzen badizkiegu, zaletasuna areagotuko diegula gure txikiei.

# Helburuak



- Musika emanaldiak zuzenean bizitu.
- Musika emanaldiaz gozatu
- Tresna errealak ezagutu
- Tresna desberdinen musika antzeman
- Musika zaletasuna areagotu
- Haur-eskola herritarrei ireki

# Edukiak



- Musika emanaldiak/instrumento ezberdinak:
  - Txalaparta, toberak, trikitixa eta panderoa, txistua eta danbolina, tinbalak, gitarra, bibolina, alboka, gaita, pianoa, flauta, aho-soinua, jostailu musikalak, ipuin musikatuak.
- Musika emanaldien inguruan: arreta, oharmena, hitzezko mintzaira, diskriminazioa
- Era desberdineko musika entzunaldiak:
  - Lasaja zein mugikorra, alaia...
  - Abestirik gabekoak eta abestuak.
  - Herrikoiak, klasikoak, haur musika

# Emanaldietako kolaboratzaileak:

- Gelako gurasoak eta guraso-ohiak
- Haurtzaro Ikastolako ikasle musikariak
- Ikasle-ohi musika joleak
- Herriko hainbat musika jole: auzokoak eta beste profesional edo aditu.
- Juan Mari Beltran, *Oiartzungo Herri Musikaren Txokoako* zuzendaria



# Baliabide osagarriak



- "Euskal Herriko soinu tresnak" bideoa
- "Euskal Herriko soinu tresnak" kasete-zinta
- "Soinu tresnak Euskal Herri musikan" liburua
- Jostailu musikalak
- Olerki eta abestiak
- Musika tresnen erakusketa
- Musika emanaldien bilduma
- Musika tresnen laminak.

# Gauzatzeko era

- Ikasturteko azken trimestrean sistematizatuko da proiektua.
- Astean emanaldi bat egingo da, ostiralean.
- Saio bakoitza tresna bati eskainia izango da.
- Musika jolea haurren gelara sartuko da eta hurrei aurkezpena egin, beraiekin solasaldian aritu eta gero hasiko da musika jotzen.
- Edozein musika jotzea ona izango da. Dena den, hurrek abestuz laguntzeko doinuak ere sartuko ditugu, edota dantzatzekoak, modu honetara beraien inplikazio zuzena bultzatuz.
- Hurrei aukera eman tresna eskutan ibili, gertutik ezagutu, jo eta gisako esperientziak egiteko.
- Musika tresnaren ezagutza beste bitartekoen bidez ere indartu: laminak, bideoa, kaxeta... Aurretik edo ondorenean.
- Gurasok inplikatu beraien aldetik ere arreta berezia jartzeko gai honen inguruan: Telebistan zerbait ikusten dutenean komentatu, etxeako entziklopediak ikusi, herriko festak.



# Ebaluaketa

- Haur-eskolako bizitza nola herriratu den: sortu duen interesa, zenbaitetaraino ezagutarazi den...
- Kolaboratzaileen jarrera haurrekiko eta oro har haur-eskolarekiko.
- Haurrek bizitutako emozio eta sentimenduak
- Hiztegi, soinu-diskriminazio, tresnen funtzio...
- Elkarrizketetarako balioa
- Jolaserako bide
- Familia bizitzan islatzeko era

